

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko apirilaren 30a. IX. urtea. 2.585. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Huyck Wangner auzitara eramango dute langileek

Zizurkilgo lantegiko beharginak kaleratze gutunak jaso dituzte; enplegu erregulazio txostena baliogabetzea eskatuko dute ◊2



Zizurkilgo Huyck Wangner-eko langileak, atzo. I.TERRADILLOS

Leitza eta Amasa lasterkarien bilgune izan dira asteburuan

Amatriain eta Goñi izan dira azkarrenak Leitzako Herri Krosean, eta Ait-Chaou eta Ibarbia Amasako Igoera-Jaitsieran ◊6



MIKEL RAOJA

→ **1.500 euro biltzea xede.** Zizurkilgo Udalak antolaturiko 'Maiatza saltsan' ekimenak 1.500 euro bildu asmo du El Salvadorreko Segundo Montes komunitatea laguntzeko. 'Guk egiten dugu, zuk zergatik ez?' lelopean etzi hasiko dira anaitzearen inguruko ekitaldiak, izen bereko erakusketaren inaugurazioarekin. ◊4

Gurea aretoa bizirik mantentzeko lehenengo pausoa da Villabona.dok

Sei dokumental proiektatuko dira zikloaren barruan, astelehenero, maiatzaren 6tik hasita; udazkenetik aurrera proiektore digitala izango du zinema aretoa, eta ekimenarekin erabilera suspertu nahi dute ◊4

San Sebastian txirrindulariak lau proba irabazi ditu apirilean

Oriako Limousin taldeko Xabier San Sebastianek 107 kilometroko ihesaldia eginda irabazi du bere azken lasterketa ◊7

Lan baldintzak okertzearen erantzukizuna egotzi dio LABek mutualitateei

Langilearen Nazioarteko Eguna da bihar; sindikatuak Hernanin egingo dituen aldarrikapenetara deitu ditu herritarrak ◊3



Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko beharginak, atzo, enpresaren atarian. I.T.

Kaleratze gutunak jaso ostean, auzitara joko dute Huyck Wangner-eko langileek

Salaketa jarriko diote zuzendaritzari; enplegu erregulazio txostena baliogabetzea eskatuko dute

Iñigo Terradillos Zizurkil

Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko 75 beharginen kaleratzea aurreikusten duen lan erregulazio txostenaren kontsulta epea iragan astean amaitu zen. Ondorioz, enpresako zuzendaritzak atzo bidali zizkien langileei kaleratze gutunak. Honen aurrean, langileek salaketa jarriko dute txostena baliogabetzea eskatuz, eta borro-

kan jarraituko dute enpresa itxi ez dezaten.

Mikel Zabaleta ELA sindikatu-ko ordezkariak adierazi duenez, langileek argi dute kaleratzeekin ez dela guztia bukatu. Aitzitik, «enpresaren jarrera» ikusita, kaleratzeetara iritsiko zirela aurreikusten zuten langileek: «Prozesuaren beste fase bat irekitzen du honek, eta aurrera jarraituko dugu, aukera guztiak ukitzen ditugun arte».

Enpresaren borondatearen harira, kaleratze gutunetan ere erakutsi dutela nolako jarrera duten gehitu du Zabaletak: «Kaleratzeetan, kalte ordain moduan, urteko 20 egun ordaintzeko asmoa adierazi dute, beraz,

beste behin, euren borondatea ikusi dugu».

Baliogabetasun eskaera

Kaleratzeak jasotzearekin batera, langileek argi dute emango duten hurrengo pausoa auzitara jotzea izango dela. «Salaketa jarriko dugu berehala, eta epaiketa izan arte ez gara geldirik egongo», azaldu du Zabaletak. Hala, 75 kaleratze aurreikusten dituen enplegu erregulazio espedientearen baliogabetasuna eta desegokitasuna eskatuko dute. «Uste dugu frogatu ahaliko dugula enpresak ez duela inongo borondatearik izan negoziatzeko, beraz pentsatzen dugu oso posible dela txostena baliogabetzea».

Epaitzeko bidea ukitzeaz gain, «borrokan» jarraituko dutela adierazi du ELA sindikatuko ordezkariak: «Batetik, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarraituko dugu, eta eurekin irtenbide positibo bat bilatzen saiatuko gara, eta bestetik, mobilizaten eta gure arazoa gizarte-ratzen segiko dugu».

Horretarako, gainera, langileeen artean «indar eta elkartasun handia» dutela diote. «Hori da langileek borrokatzen jarraitze-ko motorra, eta hori baldin bada- go beste guztia poliki-poliki egingo dugu».

Bestalde, Zizurkilgo langileekin hitz egiteko aukera irekita dagoela azaldu dute: «Enpresak ikusten duenean uste zuena baino askoz ere zailago eta garestiago aterako zaiola, beti izango du euren asmoa atzera bota, eta gurekin benetako adostasunera iristeko aukera».

■ **Bideoa.** Ikusi, Mikel Zabaleta ELAko ordezkariak eginiko adierazpenak.



Pasa den urteko larre irekieraren une bat, Larraitzen. IÑAKI GURRUTXAGA

Larren irekiera egingo dute bihar, Larraitzen

I. Terradillos

Maiatzaren 1a egun berezia izan ohi da Larraitzen. Aralarko larreak irekitzen dituzte abereak bertara eramateko, eta horren aitzakian, festa polita egin ohi dute. Egund osoan zehar, postu ugari egongo dira bertako produktuekin, eta era guztietako abererik ere ez da faltako. Ikuskizunak ere izango dira, zaldi domatzailea, mendi behor eta zaldien lehiaketa eta aizkolarien saioa, kasu. Eguerdian izango da, suzuria bota eta langa irekiko duten unea.

Maiatzaren 1a Ausa Gaztelu Eguna ere bada, eta urtero moduan, Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituen mendi katea egingo dute Aritza kultur elkarteak bul-tzaturik. Mendi buelta egin ostean, bazkaria izango da, eta bertarako txartelak eskuragarri daude, 943 556011 zenbakira deituta. Bestalde, Amasan ere abereak larreetara igoko dituzte bihar goizean. Amasa-Villabonako Udalak bigarrenez egingo du aurtien, Komizarren, festa giroa nagusituko delarik.

↓ Egitaraua

MAIATZAK 1

- **09:00.** Topagunea Larraitzen.
- **10:00.** Postuen irekiera eta trikitilariak, festa gunean.
- **11:00.** Oscar Ferrer zaldi domatzaile errioxarraren erakustaldia.
- **11:30.** Mendiko Behor eta Zaldien Gipuzkoako Lehiaketa.
- **11:30.** Ausa Gazteluko mendian eta Larraitzeko festa tokian ekitaldia.
- **12:00.** Aralarko larreak irekitzeko suzuria.
- **Ondoren.** Jose Mari Esnaola aizkolariaren saioa bost metroko altueran eta zintzilaturiko enborra ebakitzen. Bertsolariak: Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi.
- **13:00.** Mendizaleei ongietorria.
- **14:30.** Bazkaria.
- **17:00.** Erromeria, Triki Beltz taldearen eskutik.
- **Arratsaldean.** Abereen erakusteta.

Txekor jatea egingo dute bihar, Baliarrainen

I. Terradillos Baliarrain

Larraitzen edota Amasan ezezik, festa giroa nagusituko da bihar, Baliarrainen. Txekor jatea egingo dute herriko pilotalekuan. Dena den, bazkari legea egiteaz gain, 13:00etan aizkolariak (Azur-

mendi-Otaegi), trontzalariak (Ettxeberria-Astondoa, Gorostidi-Intxausti, Gabirondo-Esnaola, Iraola-Garmendia) eta lokotx biltzea (Eneko Garmendia-Ion Gokoetxea) izango dira pilotalekuan. Arratsaldean, Iraola Garmendiaren ikuskizuna izango da.

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZA

Baserriko lanak. Baserriko lan mundua ezagutzen duen pertsona euskalduna behar dugu. Interesatuak bidali curriculumak. pitxitxiosa@hotmail.es helbide elektronikora.

LAN BILA

Etxeko lanak. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zain-

tzeko, autodun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Telefono zenbakiak: 943 69 68 82 / 606 52 19 92.

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak. Betaurreko graduatuak azaldu dira Belauntza-ko San Jose ermitaren ondoan. Galdu dituenak deitu dezala Belauntzako udaletxera: 943 67 43 66.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Laneko segurtasunaren okertzea» mutualitatei egotzi die LAB sindikatuak

Biharko Hernanirako deia egin du LABek, langilearen egunean «aberastasun banaketa» aldarrikatzeko

Itzea Urkizu Tolosa

Laneko segurtasun eta osasunaren nazioarteko egunaren harira, LAB sindikatuak «langileriaren lan baldintzak okertu» egin direla salatu nahi izan zuen pasa den ostiralean, Tolosako Asepeyo mutuaurrean. Besteak beste, «laneko segurtasunaren okerreko jardueren arduradun zuzenak mutualitateak dira», sindikatua- ren arabera.

Batetik, mutualitateak Gizarte Segurantzaren diru publikoaren kudeaketa laguntzen dutela nabarmendu nahi izan zuten LABeko kideek, «beraz, laneko gertakizunetan botere osoa dute». Horrela beraz, sindikatuak salatu egin nahi izan zuten, «kostuak ahalik eta gehien murriztu» nahi dituztela mutualitateak: «Lanerako baldintza egokian egon gabe, langileok lanera joatea nahi dute».

Honenbestez, **Mutualitateak: kapitalaren morroi. Gure osasun ereduak guk erabaki!** lelopean elkarretaratzea eginez, LABek



Langileriaren osasun eskubideak izatea aldarrikatu zuten. I. URKIZU

«etorkizunean ere borrokan jarraituko» duela aldarrikatu nahi izan zuten: «Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua irmotasunez susta da dila eskatuko dugu, geure osasun eta prebentzio ereduak geuk erabaki ditzagun: langileriaren osasuna, eskubidea izango da, eta ez dute ekonomia eragileek baldintzatuko; osasun irizpideek soilik baldintzatuko dute».

Hernanirako deialdia, bihar Langilearen Nazioarteko Egune-ko aldarrikapenak, Hernanin burutuko ditu, bihar, LABek.

Aberastasun banaketan oinarrituriko lan harremana, nahiz babes sozialeko eredu berria aldarrikatuko dute Euskal Herrirako, Hernaniko Gudari plazatik abiatuko den manifestazioan, 12:00etan.

Tolosaldeko Ernaik ere, Hernanirako deialdia egin du: «Egoera sozio ekonomiko honek gehien eragiten dion taldeetako bat gara gazteok». Horrez gain, 17:00etan, bizikleta martxa egingo dute Villabonako plazatik.

Tolosan, berriz, ekitaldia izango da, 19:00etan, Plaza Berrian. **tolosaldean@hitza.info**

Gutunak

Eguzkik Ibarrako herriari

HITZAREN bidez izan dugu Tolosa Txukuneko eledun P. Amantegik Ibarrako hitzaldi batean botatakoaren berri. Zur eta lur geratu gara. Amantegik hauxe esan omen zuen: «Eguzkik bere web orrian 5. edukiontzia- ren bidez atez atekoaren emaitza berak lor daitezkeela onartzen du». Hasierako harridura berehala haserre bihurtu da, Amantegik gure blogetik esaldi bat hartu eta komeni izan zaion bezala moztu baitu, gure pentsaeraren antipodetan dagoen jarrera defendatzeko, gainera. Txukuntasunaren alde ari omen den baten aldetik, ezin genuen joko zikinagorik espero.

Esaldi hori, 5. edukiontzia- ren bidez lortutako emaitzei buruz egin genuen balorazio batean agertzen da (nahi duenak ikus dezake bideoa, <http://eguzkidonostia.blogspot.com>). Esaldiki, honela dio: «5. edukiontzia erabiltzea derrigorrezkoa balitz, ia atez atekoa bezain eraginkorra izan liteke».

Hain justu, «derrigorrezkoa» da hitz erabakigarria, EAJ-k eta PSE-EE- ren moduan, errauste planta inposatu nahi dutenek saihestu nahi dutena. Hala ere, zaila komeni birziklatzea derrigorrezkoa izatea; derrigorrezkoa balitz, errauste plantak ez luzeelako etorkizunik. Horren adibide garbiak dira, gobernatzan dituzten udalderriak: Elgoibar, Hondarribia, Aia edo Zegama. Udalerrietan 5. edukiontzia dago; ez derrigorrezkoa, borondatezkoa baizik. Biltzen duten zabor organiko kopurua hutsaren hurrengoa da. Hau da, itxurak egiten dituzte, birziklatu nahi balute bezala, baina ez dute pausorik ematen bilketa benetan eraginkorra izan dadin. Logikoa, errauste planta bazka gabe geratuko da, bestela. Amantegik horregatik kendu du derrigorrezkoa hitza gure esalditik. Ez da kendu duen bakarra, ordea. Izan ere, «ia» atez atekoa «bezain» eraginkorra izan litekeela esan genuen, inoiz ez baita atez atekoa «bezain» eraginkorra izango. Nabardura garrantzitsua, guk uste.

Amantegik ingurumenaren alde 20 urte daramatzagula esaten duenean ere, ez dabil zuzen. Ez bakarrik 20 urte baino gehiago direlako, baizik eta urte horietatik 19tan errauste plantaren kontra aritu gara sailhesten duelako. Beterano batek baino gehiagok gogoan izango du, EAJk 1994an Usabalen errauste planta bat eraiki nahi izan zuela. Zorionez, herri ekimenari esker, bertan behera geratu zen. Dioxina fabrika txukun geratuko litzateke ikastola eta kiroldegia- ren ondoan!

Entzun nahi duenak entzun beza: Eguzkiren iritziz, borondatezko 5. edukiontzia, hau da, ezagutzen dugun 5. edukiontziko eredu bakarra, birziklatzeari aurre egiteko barrkada gisa erabiltzen ari dira. Batzuek, errauste planta dutelako helburu, eta beste batzuek, berriz, birziklatu gabe eroso daudelako eta horrela jarraitu nahi dutelako.

■ **Juan Mari Beldarrain.** Eguzkiko kidea.

«Birziklatzearen alde, atez atekoaren aurka»

Bai, halaxe diote, birziklatzearen alde daude baina atez atekoa ez dute nahi. Apirilaren 22an, Ibarrako kultur etxean atez ateko bilketaren aurka eta bosgarren edukiontzia- ren aldeko hitzaldia izan zen. Hizlaria, Patxi Amantegik; laguntzaileak, Tolosako EAJren zinegotzia den Olatz Peon.

Amantegik gezur asko esan zituen, eta beste gauza asko aipatu gabe utzi. Errespeturik gabeko «graziak» egin zituen publikoa berotu asmoz: argudio gutxi eta irain ugari hitzaldia eman zuen. Bere argudioak eta alternatibak azaldu ordez, atez ateko bilketaren aurkako hitz-jarioa erakutsi zuen.

Europak 2016rako, gutxienez %50eko birziklatze tasa izatea agintzen du, eta berak dio, bosgarren edukiontzia- rekin gaur egun %33ra iristen garenez, denborarekin %40-50era erraz iritsiko ginatekeela. Frogatuta dago edukiontzia hori dagoen herrietan, Urola Kostan adibidez, ez dela %30era ere iristen, eta badira lauzpabost bat urte sistema hori finkatuta dutela. Hala ere, epe motzean eskatutako kopuruetara iristeko arazorik ez dagoela esaten jarraitu zuen. Ez zuen azaldu nola.

Esan zuen, baita ere, landa eremu herri edota auzoetan ez dela atez atekorik ezarriko, ezinezkoa delako. Ados. Baina auzo konpostea eta auto konpostea aipatu ere ez zituen egin, toki horietan gaur egungo sistemak jarraituko duela sinestaz nahi izan zuelako.

Egia esan izan balu, entzule askok jakingo zukeen, herri eta auzo horietan familia askok urteak daramatzatela konpostea egiten, hondakin organikoak zabor ontzietara bota gabe.

Errauste planta aipatu ere ez, hau ez da, nonbait, bere kontua. Bera, afera horretatik da dago. Nola ba? Bosgarren edukiontzia- k ez baditu birziklatze kopuru batzuk ziurtatzen, errauste planta beharrezkoa izango da. Berak hori badaki, eta isildu egiten da fede txarrez.

Azkenik, Tolosaldeko Mankomunitateko tekniko batzuk aipatu zituen euren inpartzialitatea kolokan jarriaz, zero zabor diren herrietatik datoztelako. Nor da inpartziala? Bera? EAJ errauste plantaren alde dago; eskrupulurik ez duen «alderdi ekonomiko» da. Nortzuk, eta zein helbururekin, sortu dute Tolosaldea Txukun?

Izan gaituzen serioak, eta era sano batean eztabaida dezagun. Birziklatzeko betebeharrak deno- na da, eta zabor gutxiago sortzeko erantzukizuna ere bai. Errauste plantarik ez dugu behar, ez Zubietan eta ez inon!

■ **Ainhoa Muñagorri.** Ibarra.

Irudia ▾ Amasa-Villabona



ERRAUSTE PLANTA IRUDIKATUZ

Aiztondo bailarako Ernai gazte antolakundea, atez atekoaren alde eta errauste plantaren aurka azaldu da Villabonako Berdura plazan egindako agerraldian: «Gazteok ez dugu inongo errauste

plantarik nahi», nabarmendu zuten. *Hau da nahi duzun etorkizuna?* zioen pankarta baten aurrean, errauste planta bat irudikatu zuten gazteek. HITZA

Gurea antzokia bizirik mantentzeko sortu dute maiatzaren 6an hasi eta ekainaren 10ean amaituko den ekimena

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Gurea zinema antzokia bizirik, erakargarri eta edukiz bete mantendu, eta ohiko programazioaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, Villabona.dok dokumental zikloa antolatatu du Amasa-Villabonako udalak datorren hilabeterako.

Maiatzaren 6tik hasita, ekainaren 10era bitarte, astelehenero (21:00etan), zine programaziotik kanpo geratu ohi diren sei dokumentalek osatuko dute zikloa. «Fikziozko filmez gain, beste proposamen batzuei ere atea zabaldu nahi izan dizkiegu, izan ere, dokumentala ere zinema da», azaldu du ekimenaren aurkezpen ekitaldian Nora Urbizu kultura eta euskaraz zinegotziak.

Euskaraz, gaztelerez, edota jatorrizko hizkuntzan daude filmak, eta orotariko gaiak jorratzen dituzte. Zikloa irekiko duen *Hijos de las nubes* dokumentalak, esaterako, Mendebaldeko Sahararen egoera kontatzen du. Gainontzekoek, aldaketa klimatikoa (*Habia una vez una isla*), mendi erreskateak (*Pura Vida*), indarkeria-eguzen aktiboa (*Ziztadak*), menopausia (*Mujeres sin pausa*) eta produktu elektronikoen zaharkitze progra-

Villabona.dok zikloaren barnean sei dokumental proiektatuko dira Gurean



Nora Urbizu eta Joxean Cubero dokumental zikloko kartelarekin. MIKEL IRAOLA

matuaren (*Comprar, tirar, comprar*) gaiak jorratzen dituzte.

Dokumental hauek azken bi urte hauetan zehar ekoiztutakoak diren arren, «ikusteko interesgarriak» direla adierazi du Joxean Cubero kultur dinamizatzaileak.

Herritarren erantzuna, baina, ezinbestekoa izango dela azaldu du Cuberok, eta horregatik, pelikulen sarrerak prezio eskuragarri jarri dituzte. Dokumental bakoitza ikusteko sarrera hiru eurokoa izango da; aldi, zikloko film guztiak ikusteko bonua hamabi eurotan erosi ahal izango da.

Gurea suspertu nahian
Villabona.dok Gurea aretoa suspertzeko bidean «lehen urratsa»

izatea espero dutela esan du Urbizuk: «Gurea proiektore digitala izango du udazkenetik aurrera. Apustu handia da hori gurea bezalako herri batentzat. Gainera, orain Villabonako Udaleko Kultura Saila arduratzen da programazioa aukeratzeaz, kultur irizpideak, ekonomikoan gainetik jarriaz. Konfiantzaz egingo dugu apustu hori, ikusleek gure ahalegina eskertzen jakingo dutela segurua gaudelako. Espero dugu ekarpen horrek pelikula berriak Villabonan bizkorrago estreinatzen eta zinema programazioa zabala, anitz eta malguago bat izaten lagundu dezan».

Ohiko programazioan txertatu baino, ziklo moduan oihartzun handiagoa izango duelakoan anto-

↓ Egitaraua

MAIATZAK 6

- **Izena.** *Hijos de las nubes*.
- **Zuzendaria.** Alvaro Longoria.
- **Hizkuntza.** Gaztelaniaz.
- **Gaia.** Mendebaldeko Sahararen egoera, modu didaktikoan.

MAIATZAK 13

- **Izena.** *Habia una vez una isla*.
- **Zuzendaria.** Briar March.
- **Hizkuntza.** Ingelese eta tikuuz; azpitu luak gaztelaniaz.
- **Gaia.** Aldaketa klimatikoaren ondorioz, Pazifikoko Takuu uhartearen errealitatea.

MAIATZAK 20

- **Izena.** *Pura Vida*.
- **Zuzendaria.** Pablo Ibarburu eta Migueltxo Molina.
- **Hizkuntza.** Gaztelaniaz, euskarazko azpitu luak.
- **Gaia.** Iñaki Ochoa de Olza mendizale nafarra biriz erreskatatzeko operazioa.

latu dute Villabona.dok. Ondo joanez gero, hurrengo urteetan errepikatzen asmoa daukatela adierazi du Urbizuk: «Espero dugu, au-

MAIATZAK 27

- **Izena.** *Ziztadak*
- **Zuzendaria.** Oriol Andres, Carlos Castro eta Gemma Garcia.
- **Hizkuntza.** Euskaraz.
- **Gaia.** Indarkeria-eza aktiboaren estrategiak, justizia soziala lortzeko baliabide gisa.

EKAINAK 3

- **Izena.** *Mujeres sin pausa*.
- **Zuzendaria.** Paula Palacios.
- **Hizkuntza.** Gaztelaniaz
- **Gaia.** Herrialde ezberdinetako emakumeek nola bizi duten menopausia.

EKAINAK 10

- **Izena.** *Comprar, tirar, comprar*.
- **Zuzendaria.** Cosima Daronnitzer.
- **Hizkuntza.** Gaztelaniaz
- **Gaia.** Produktu elektronikoen zaharkitzearen programatua.

rrentzean ere film laburrak eta ohiko eskaintza arruntetik ateratzen diren beste proposamen batzuk ere ikustea».

Aurtengo Maiatza Saltsanek 1.500 euro biltzeko helburua du

Bildutako dirua Padre Segundo Montes institutuan bost gaztek goi mailako ikasketak burutzeko erabiliko da

M. Iraola Zizurkil

Zizurkil eta El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen arteko anaieratzearen 20. urteurrena izango du hizpide 2013ko Maiatza Saltsan ekimenak. Hori dela eta, anaieratzearen inguruko ekitaldi ugari antolatatu dituzte maiatzerako *Guk egiten dugu, zuk zergatik ez?* lelopean.

Guzti horren helburu nagusiak bi dira: alde batetik, bi herriaren arteko hobe urteko harremana ospatu eta anaieratzeak bizirik irauten duela gogoraraztea; eta bestalde, 1.500 euro biltzea, Padre Segundo Montes institutuan bost gaztek goi mailako ikasketak bertan burutu ahal izateko. Horretarako, kontu korronte hau zabalduta dute: 2095-5072-63-1063439367.



Alaitz Ormazabal eta Ainhoa Larrea Maiatza Saltsaneko kartelarekin. M.I.

Ingenieria Zibileko Teknikaria (eraikuntza, iturgintza eta elektrizitatea) eta Hosteleria eta Turismo Teknikaria izateko ikasketak eskaintzen ditu, eta hiru urterako ikasketak izango lirarteke.

Duela hogeita urte, anaieratzea egin eta hainbat proiektutan parte hartu du Zizurkilgo herriak, hala nola, komunitateko etxeetara ura eramatea. Otaño eta San Millan ikastetxeek ere harreman zuzena dute Henry Ortiz eta El

Barrial ikastetxeekin. Bailara mailan ere, Asteasu, Aduna eta Villabona beste komunitate batzuekin anaieratuta daude. «Esan daiteke Aiztondo bailara Meanguerarekin anaieratuta dagoela», azaldu du Alaitz Ormazabal, kultura zinegotziak.

Modu horretan, amaiera emateko, bailarako herrien artean antolatzen duten Senidetze egunak eman dio amaiera aurtengo Maiatza Saltsaneko ospakizunei.

↓ Egitaraua

MAIATZA SALTSAN 2013

- **Maiatzak 2.** *Guk egiten dugu, Zuk zergatik ez?* erakusketaren inaugurazioa eta *Aiztondo-Meanguera anaieratzea* hitzaldia, Euskal Fondoaren eskutik.
- **Maiatzak 4.** Bertso eguna: bertso pelota, bertso afaria eta Otaño bertso paper lehiaketako sari banaketa.
- **Maiatzak 5.** Andatza Eguna.
- **Maiatzak 8.** *Sin Nombre* filma Atxulondon, 19:00etan. Gaia: El Salvadorreko errealitatea.
- **Maiatzak 10.** Udala Jardunaldi teknikoak Atxulondon
- **Maiatzak 11.** *Errimak oinetan* emanaldia Intxaur pilotalekuan. Sarrera: 5 euro.
- **Maiatzak 12.** Herri Urratsera autobusa, Udala eta Txepetxa Gazte Asanbladak antolatuta.
- **Maiatzak 14.** Ipuin kontaketa solidarioak Otañoan.
- **Maiatzak 15.** San Isidro eguna.
- **Maiatzak 17.** Herriko haurrak bertso, dantza eta kantari ibiliko dira (17:00etan); janari truke gastronomikoa: El Salvador eta Euskal Herriko janaria prestatuko da Urkamendin eta Aurrera Plazan dastaketa eskainiko da.

- **Maiatzak 19.** Biatloia.
- **Maiatzak 21.** *Segundo Montes, libre de analfabetismo* hitzaldia.
- **Maiatzak 22.** *Retorno a Morazan* bideo emanaldia eta Guggaz-eko film laburrak. Hitzaldia ere izango da Atxulondon.
- **Maiatzak 23.** Loatzo Musika Eskolako kontzertua, 19:00etan Atxulondon.
- **Maiatzak 24.** Kantu Jira Elbarrenan, 20:00etan.
- **Maiatzak 25.** Senidetze eguna.

SENIDETZE EGUNA

- **Harrera.** Zizurkilgo Udaletxean harrera instituzionala egingo da 11:00etan. Ondoren kalejira Kataluiniatik etorriko den konpartsa baten eskutik.
- **Pailazoa.** Porrotxek emanaldia emango du Pedro Mari Otaño Plazan, 12:00etan.
- **Harrera herrikoia.** Bertsolari eta dantzariekin harrera. Talo solidarioak eta Empordako ardo dastaketa. 13:00etan.
- **Bazkari herrikoia.** Paella egingo dute, 14:30ean.
- **Kontzertua.** Fermin Valentzia.

Hezkuntzako murrizketak eta eraikinaren baldintza txarrak salatu dituzte elkarretaratze bidez, Alkizan; azken ostiralean, berriz, herri askotan bildu dira euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko.

Aldarrikapenerako egunak



Tolosa ◉ Euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzeak egin dira eskualdeko hainbat herritan. HITZA



Alkiza ◉ Alkizako herri eskolako irakasleak eta begiraleak murrizketen aurka agertu dira; gainera, eskolan dituzten leku falta eta baldintza txarrak salatu dituzte elkarretaratze bidez. HITZA

Eneritz Maiz

Asteburuaren ataria aldarrikapenerako baliatua izan da. Azken ostirala izanik eskualdeko hainbat herritan elkarretaratzeak egin zituzten euskal preso eta iheslarien eskubideen defentsan. Adunan, 6 pertsona; Zizurkilen, 62; Villabonan, 57; Iruan, 17; Anoetan, 24; Tolosan, 80; Ibarra, 55; Berrobin, 4; Berastegin, 32; Gaztelun, 24; Leaburu-Txaraman, 6; Lizartzan, 31; Altzon, 25; Alegian, 25; Ikaztegiatan, 10 eta Amezketan, 11 elkartu ziren.

Hezkuntzako murrizketak dira eta, Alkizako herri eskolako irakasle eta begiraleek ere elkarretaratzeak egin zuten. Murrizketaz gain, ordea, herri eskolan duten leku falta, eta horrez gain, eraikinaren baldintza penagarriak ere salatu nahi izan zituzten. «Murrizketak aitzakia, hezkuntzatik xentimo bat ere ez digute emango herri eskolako baldintzak hobetzeko», adierazi dute irakasle eta begiraleek.

Benito Lertxundiren abestekin osatutako kontzertua izan zen Leidor aretoan Kilometroak 2013k antolatuta. Lau abesbatzak eta orkestrak eskaini zuten emanaldia, eta ikusleak hunkitzea lortu zuten. Hauen artean zen Benito Lertxundi bera ere. Bestalde, Amasa-Villabonan, Oinkari dantza taldearen eskutik Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako kanporaketa jokatu zen.

Igandean, Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna ospatu zuten txikienek, Pasai Donibanen. Tolosaldeko bertso eskolako ikasleak bertan izan ziren.



Tolosa ◉ Kilometroak 2013k antolatuta, Benito Lertxundiren abestekin osatutako kontzertu hunkigarria izan zen, Leidorren. HITZA



Bertsolaritza ◉ Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna ospatu zuten, Igandean, Pasai Donibanen. Tartean izan ziren Tolosaldekoak ere. HITZA



Alegia ◉ Patataz betetako kamioi batek su hartu zuen igandean, Alegiako gasolindegira iritsi baino lehen. A. MAIZ



Villabona ◉ Euskal Herriko Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketako kanporaketa jokatu zen, larunbatean, Gurea antzokian. E. MAIZ

◉ Asteburuko argazki, bideo eta albisteak: tolosaldea.hitza.info

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****ARETO FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA****27. jardunaldia**

Ibarra-Zarauz	7-3
Laskorain-Inter Eder	4-5
Egintza-Sestao	2-0
Tolosala-Goierri	5-2

Sailkapena

1. Aurrera	66p
2. Ibarra	65p
3. Santurtzi	61p
4. Bilbo	60p
5. Goierri	47p
6. Tolosala Hirukide	44p
7. Inter Eder	42p
8. Laskorain	41p
9. Soloarte	36p
10. San Jorge	32p
11. Mallabia	29p
12. Buruntza	29p
13. Zarautz	29p
14. Egintza	28p
15. Sestao	16p
16. Gora	8p

Hurrengo jardunaldia**Gora-Ibarra****Buruntza-Egintza**

Sestao-Laskorain (Jokatuta) 0-2

Inter Eder-Hirukide**FUTBOLA****ERREGIONAL OHOREZKOAK****29. jardunaldia**

Bergara-Tolosa 0-1

Sailkapena

1. Oiartzun	69p
2. Hernani	67p
3. Real Union	62p
4. Aretxabaleta	57p
5. Bergara	46p
6. Berio	46p
7. Tolosa	45p
8. Hondarribia	43p
9. Aloña Mendi	39p
10. Touring	34p
11. Zarautz	33p
12. Beti Gazte	33p
13. Lagun Onak	33p
14. Urola	31p
15. Mondragon	31p
16. Ostadar	31p
17. Aurrera	26p
18. Trintxerpe	25p

Hurrengo jardunaldia**Tolosa-Hernani****ESKUBALOIA****BIGARREN MAILARAKO****IGOERA FASEA****Lehenengo fasea**

Tolosa CF-Deusto	31-30
Tolosa CF-Legazpi	22-21

Fase erabakigarria hurrengo asteburuan jokatuko dute**PILOTA****I. Ogi Berri Txapelketa,****Migel Soroa Oroimenezkoa****Jubenilak**

Labaka-Otaduy	22
Olaizola-Goñi	18

Promesak

Bisintxo-Perez	22
Urretabizkaia-Santxex	3

SASKIBALOIA**LEHEN MAILA****27. jardunaldia**

Bide Bide Donostia	81
Mondragon Unibertsitatea	72

Sailkapena

1. Mikelidi	19-8
2. Askartzeta	19-8
3. Bide Bide Donostia	18-9
4. Asesoría SAF	18-9
5. Lizuan	17-10
6. Atletico Sn Sn	17-10
7. Mondragon Uni.	15-12
8. Tabirako	14-13

Hurrengo jardunaldia**BIOK Zerbitzuak OKE****Bide Bide Donostia****ATLETISMOA****XXXV. LEITZAKO HERRI****KROSA 2013****Sailkapena, gizonezkoak**

1. Raul Amatriain	31:23"
2. Javier Nagore	31:38"
3. Alberto Barberena	32:36"
4. Ibai Alba	32:55"
5. Gaizka Romero	33:37"
6. Aimar Agirresarobe	34:15"
11. Fernando Irazoki	36:00"

Emakumeak

1. Itziar Goñi	19:36"
----------------	--------

Izaskun Bereau (Lehen leitzarria)**LOATZOKO XXI. IGOERA****JAITSIERA****Sailkapena, gizonezkoak****1. Hassan Ait-Chaou 42:50"****Emakumezkoak****1. Aitziber Ibarbia 51:02"**

Aitziber Ibarbia zizurkildarrak irabazi zuen igandean, Loatzoko Igoera-Jaitsiera proba. JONE AMONARRIZ

30 minututik gorako lanak egin dituzte lasterkariak Amasan eta Leitzan

Raul Amatriain, Itziar Goñi, Hassan Ait-Chaou eta Aitziber Ibarbia podium-aren gorenera igo dira

Asier Imaz

Tolosaldeko korrikalariak bi probetan parte hartzeko aukera izan dute asteburuan. Larunbatean, Leitzan XXXV. Herri Krosa jokatu zen, eta igandean, Amasan, Loatzoko XXI. Igoera-Jaitsiera. Azken lasterketa honetan, irabazleak eskualdekoak izan ziren: Hassan Ait-Chaou billabonatarra eta Aitziber Ibarbia zizurkildarra.

Amasan hasi eta amaitu zen proba Uxo-Toki Elkarteak eta Amasako Martina Kultur elkarteak antolatuta zuten. Aurreko edizioetan baino jende gehiago elkartu zen irteera puntuan, eta lasterketan 86 korrikalari aritu ziren lehian. Eguraldia ere lagun izan zuten, ikusleek ez zuten hutsik egin; Loatzoko gainean giro ederra sortu zen kirolari eta jarraitzaileen artean.

Helmugan lehena Hassan Ait-Chaou izan zen. Billabonatarrek 42 minutu eta 50 segundotan gelditu zuten kronoa. Emakumezkoetan lehenak, Aitziber Ibarbia zizurkildarrak, 51 minutu eta 02 segundoko behar izan zituen lasterketa amaitzeko.

Bezperan, Leitzan, XXXV. Herri Krosa lehiatu zen. Guzтира, haur nahiz heldu, 300 partaide inguru ateratu ziren irteera puntutik. Nagusien mailan, gizonezkoek 10



Goian, Loatzoko probaren irteera. Beheran, Amatriain Leitzan. J.A./E.M.

kilometroko ibilbidea egin zuten, eta emakumezkoek, 5 kilometrokoa.

Aurrera Kirol Elkarteak antolatzen duen lasterketan Raul Amatriain eta Itziar Goñi izan ziren irabazleak. Amatriainek 31 minutu eta 23 segundo behar izan zituen 10 kilometroak egiteko, eta Itziar Goñik, 19 minutu eta 36 segundotan amaitu zuen ibilbidea. Eskualdeetako lehena Aimar Agirresarobe izan zen. Tolosarrak seigarren postuan amaitu zuten lasterketa. Lehen Leitzarria,

aldiz, Fernando Irazoki izan zen. Sailkapen nagusian hamaikagarren postuan amaitu zuen Irazokik.

Emakumeen artean, helmugan sartu zen lehen leitzarria Izaskun Bereau izan zen.

Amasan ez bezala, eguraldia ez zuten lagun izan Leitzan: hotza eta euria izan ziren protagonista. Horregatik eta galdutako indarrak berreskuratzeko, lasterketaren amaieran lunch-a jarri zuten antolatzaileek korrikalari guztiarentzat.



XXXV. Leitzako Herri Krosean 150etik gora korrikalari elkartu ziren. E.M.AIZ

San Sebastianek 107 kilometroko ihesaldia garaipenean bilakatu du

Oriako Limousin-eko txirrindulariak lau proba irabazi ditu apirilean, azkena, Gipuzkoako Klasika

Asier Imaz Tolosa

Tolosako Oriako Limousin txirrindulari taldeko Xabier San Sebastianek lau proba irabazi ditu apirilean. Asteburuan, Gipuzkoako XVI. Klasikan, erakustaldia eman zuen San Sebastian jubentak. Donostiako Egian hasi zen lasterketa, eta bosgarren kilometroan ihes egin zuen Oriako Limousin-eko txirrindulariak. Lasterketak 113 kilometroko ibilbidea zuen. San Sebastianekin batera Caja Ruraleko txirrindulari bat irten zen tropeletik, eta biak, 88. kilometrorra bitarte elkarlanean joan ziren. Puntu horretan, San Sebastianek erasoak jo eta bakarrik gelditu zen; modu horretan iritsi zen helmugara, 107 kilometro ihesean egin ondoren.

Gipuzkoako Klasika lortzeaz



Xabier San Sebastian Gipuzkoako XVI. Klasikan, helmugara iristen. HITZA

gain, apirilean, Xabier San Sebastianek Baionako, Aguraingo eta Debako probak irabazi ditu.

Oriako Limousin-eko txirrindulariekin jarraituz, Gipuzkoako Klasikan, Jon Madariaga bigarren multzoan iritsi zen helmugara. Multzo honetan, Jon Irisarri zegoen, baina 500 metro falta zirelarik, sprint-ean, lurrera erori zen. Zorionez, ez zuen zauri handirik egin.

Kadete mailan, Tolosako txi-

rrindulariak Deban aritu ziren lehen. Asier Arozenak bederatzigarren amaitu zuen, eta Aitor Irazuk, hamalagarren.

Neskei dagokienez, Oriako Limousinekoak Euskadiko Torneoeko proba jokatu zuen kadeteetan. Sara Perez hamairugarren aurkitzen da, jardunaldi guztiak batuta, eta Maddi Amundarain hamabosgarren. Juniorretan, Lierni Lekuona lehen postuan doa, eta Ane Iriarte hirugarren.



Jubentien partidak eman zion hasiera I. Ogi Berri Txapelketari. E. MAIZ

150 ikusle Ogi Berri txapelketaren lehen jardunaldian

Migel Soroaren Oroimenezko txapelketan bi partida jokatu dituzte Tolosako Beotibar pilotalekuan

A. Imaz Tolosa

Tolosako Beotibar pilotalekuak oso harrera beroa egin dio I. Ogi Berri, Migel Soroaren Oroimenezko Txapelketari. 150 pilotazale elkartu ziren larunbatean torneooko lehen jardunaldian. Bi partida jokatu ziren Tolosan, eta joko handirik ez zen ikusi.

Jubeniletan, Labaka eta Otaduyk lortu zuten lehen garaipena, Olaizola eta Goñiren aurka.

Otaduy-k Agirre ordezkatu zuen, eta partidako pilotaririk sendoen izan zen, huts gutxi eta neurria emanaz. Labakak gantxo eder batzuk egiteko aukera izan zuen, baina oro har, partida ez zen ikusgarria izan. 22-18 amaitu zen lehia, eta hutsak izan ziren protagonista.

Etorkizuneko pilotarien mailan, Bisintxo-Perezek 22-3 irabazi zuten Urretabizkaia eta Santxezi. Historia handiegirik gabeko partida izan zen. Santxezek 14 huts egin zituen, eta ondorioz, aurkariak erraz gailendu ziren, 8-3kotik zuzenean 22ra iritsiz.

Txapelketaren bigarren jardunaldia larunbat honetan jokatu da, Tolosako Beotibar pilotalekuan, 17:00etan hasita.

Edurne Pasabanek ezker hankarekin hasi du Titan Desert proba gogorra

Lehen etapan erorikoak izateaz gain, sabeleko minarekin ibili da tolosarra; ostiralean amaitzen da lasterketa

Erredakzioa

Edurne Pasabanek erronka berri bati ekin dio Marokoko desertuan. Mendiarekin lotura handirik ez du oraino abenturak, baina zortzi milakoak bezain gogorra da. Mendi bizikletaren



Pasaban, Titan Desert proban. HITZA

gainean jarri eta Titan Desert lehiatzen ari da tolosarra. Igandean hasi zen lasterketa, eta ostiralean jokatu da azken etapa. Le-

hen jardunaldia gogorra izan zen Pasabanentzat. Hainbat eroriko izateaz gain, sabeleko minarekin ibili zen, eta guzti horren ondorioz, etapa denboraz kanpo amaitu zuen. Horren ondorioz, sailkapen ofizialean ez da agertuko tolosarra, baina hala eta guztiz ere, Pasabanek ez du etxerako bidea hartu, eta Marokon jarraitzen du. Atzo korritu zuten bigarren etapa, eta bezperan sufritu atzean uztea lortu duela dirudi. Bigarren jardunaldia 8 ordu eta 29 minututan amaitu zuen. Gaur hirugarren etaparen txanda izango da.



Partidak aurrera egin ahala, jende gehiago hurbildu zen frontoira. E. MAIZ

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	16°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Dagoeneko hasi dira parke berriak gozatzeko Anoetako txikiak. HITZA

Anoetan herritarren parte hartzearekin berriro dute haurrentzako parkea

Herriko plazan dagoen haur parkea zaharkitua zegoen, eta udalak berriro erabaki du gurasoen laguntzarekin

Eneritz Maiz Anoeta

Anoetako Udalak, herriko txikiak kontuan hartuz haurren parkea berriro erabaki du. Martxo aldera hasi zituzten berriro lanak, eta duela pare bat aste bukatu zituzten obrak. Herriko pla-

zako haurren parkea zahartua zegoela adierazi du Pello Estanga alkatea: «nahi eta nahiez berriro beharra zegoen, egoera txarrean eta haurrek mina hartzeko arrisku zegoen».

Lanak egiteko, ordea, herritarren parte hartzea bultzatu du Anoetako Udalak, eta gurasoek zer esana izan dute parkea nolako izan behar zuen erabakitzerakoan. Udalak aurrekontu batzuk aurkeztu zituzten, eta egindako bi bileretan, gurasoek, iritziak emateaz gain, ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

Horren harira, gurasoek, haur parkean itzalaren falta sumatzen zutenez, udalak hori ere kontuan hartu du. Aurrerantzean, egun eguzkitsuetan guraso eta haurrek itzala ere izango dute.

Parkea berriro 40.000 euroko aurrekontua izan du, eta udalak lan hauek egiteko Zizurkilgo enpresa bat kontratatu du.

Esker oneko hitzak jaso dituzte udalean lanak egin eta gero. Estangak esan duenez, «oso ondo» geratu dela adierazi diete herritarrek.

o anoetaldea@hitza.info

Agurrak



Zorionak aitona!

Larunbateko partez, asko maite zaitugun bilobak.

MAUKA berria GAURKO ESKAINTZA

Zure gorputzari merezi duen askatasuna itzuli

OPTIME 360
Ramon Maria Lili kalea (Gros auzoa)
Donostia 20002 GIPUZKOA
Tel.: 630-625 232
info@optime360.com
www.optime360.com

Prezioa **30€**

www.mauka.eu **berria** taldea

Agenda

GAUR

DEIALDIK

■ **Amasa-Villabona.** Prestakuntza tailerren barruan, 18:00etan, Villabonako Mintzolan SOS Arrazakeriak-eko Agustin Unzurrunzagaren eskutik, *Zurrumurruen aurkako erantzunak* jardunaldia izango da. Eskualdean diren zurrumurru hedatuena azterketa egingo dute.

■ **Anoeta.** Maiatzaren 18an Herri-ara-keituta, *Plazak bete* ekimena aurrera eramango da Euskal Herri osoan. Anoetan, egun horretan egingo dena antolatzeko bilera irekia burutuko da udaletxean, 19:00etan.

■ **Lizartza.** Lizartzako gaztetxean, 19:00etan, *El Corazon de la Tierra* filma ikusteko aukera izango da, Ernai gazte antolakundearen eskutik.

■ **Ibarra.** Ohiko osoko bilkura egingo dute Ibarra udaleko ordezkariak. 19:00etan hasiko da, eta sei puntuko gai ordena jorratuko dute.

■ **Ibarra.** *Germinal* filma eskainiko dute Ibarra gaztetxean, 19:00etan, Ernai gazte antolakundearen eskutik.

■ **Tolosa.** *La batalla de Seattle* filma ikusteko aukera izango da

Otsabin, 19:00etan, Ernai gazte antolakundearen eskutik. Ondoren, lunch-a eskainiko dute.

■ **Tolosa.** Ohiko osoko bilkura izango da Tolosako udaletxean, 19:30ean hasita.

■ **Tolosa.** Kuadrilla eguneko kartela egiteko gaia *banderak* izango da, eta kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a. Lanak, *kuadrillaeguna2013@gmail.com* helbide elektronikora bidali behar dira.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Bonberenean, Talco talde italiarraren kontzertua izango da, 21:00etan hasita. Sarrera zortzi euro ordaindu behar harko da.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Eguneko eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Harpide egiteak saria du

Egin HITZAren harpidedun apirilaren 1etik

maiatzaren 31ra arte, eta jaso

OPARI

Basoa banaketak eskainitako 3 ardo botila



eta

Harpidedun guttien artean

Arete Etxea nekazalturismoan bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU



Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info